

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

ASTEKO GAIA  
Artisauen VIII.  
ferixie /9-16



**GURUTZE MUJIKAREN  
MARGOLANAK IKUSGAI  
GAURTIK AURRERA**

**UDALA: EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA ABIAN/4 • KIROLAK: ARATZEKO IGERILARIAK/6**



**GUARDIAKO FARMAZIA**

**ZAPATUA, 5**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 6**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OROKORRAK**
- Almen ..... 943 71 49 07
  - ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21
  - Faxa ..... 943 77 18 54
  - Basotxo ..... 943 77 09 81
  - Euskaltegia ..... 943 79 21 68
  - Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62
  - Hezibide elkartea ..... 934 79 31 32
  - Industrialdea ..... 943 79 62 80
  - Institutua ..... 943 79 79 00
  - Kirol etxea ..... 943 71 26 28
  - Kultura etxea ..... 943 71 10 27
  - Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49
  - Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40
  - KZGunea ..... 943 79 94 44
  - Liburutegia ..... 943 71 18 62
  - Loramendi EE ..... 943 77 09 70
  - Ludoteka ..... 943 79 05 81
  - Mankomunitatea ..... 943 79 30 90
  - Murruxiko ME ..... 943 79 93 74
  - Musika Eskola ..... 943 79 36 50
  - Osasun etxea ..... 943 71 19 59
  - Otalora ..... 943 71 24 06
  - Parrokia (bulegoa) ..... 943 79 18 42
  - Pausoka Haur Eskola ..... 943 77 03 77
  - Postetxea ..... 943 79 28 31
  - Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00
  - Taxi geltokia ..... 943 77 12 64
  - Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62
  - Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63
  - Urats Gain ..... 943 79 99 11
- UDALTAINGOA**
- Arrasate ..... 943 79 14 39
- LARRIALDIAK**
- SOS Delak ..... 112
  - Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00
  - Ertzaintza ..... 943 53 47 20
  - Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76
  - Larrialdiak ..... 943 46 11 11
  - Suhiltzaileak (Onati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:30  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: AREANTZA**  
Domekan 11:30ean.

**MENDIOLA**  
Domekan 12:00etan, otoitzaldia.

**GALARTZA**  
Domekan 12:30ean.

**OHARRAK**

**MARGO ERAKUSKETA**  
Gaur, ekainak 4, hasi eta 18ra bitartean Gurutze Mujikaren margo erakusketa egongo da ikusgai udaletxeko ganbaran. Ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan, 12:00etatik 13:00etara.

**KIROL IKASTAROETARAKO IZENEMATE EPEA**  
Udaleko Kirol Zerbitzuak hainbat kirol ikastaro antolatu ditu ume eta gaztetxoendako. Izenemate epea hila-ren 11n bukatuko da.

**MENDI MARTXA**  
Murruxiko MEK antolatuta III. Mendi Martxa egingo dute ekainaren 13an. Irteera 07:30ean izango da Copreci lantegiko aparkalekutik eta 28 kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte-hartzaileek. Informazio gehiago Murruxikon: 943 79 93 74, martitzenetan.

**PIRAGUA IRTEERA**  
Murruxiko MEK piragua irteera antolatu du Gallegora ekainaren 26 eta 27rako. Izena emateko lokalek pasatu edo deitu 943 79 93 74 telefono zenbakira, martitzenetan 19:00etatik 20:00etara bitartean. Bestela, Azkena tabernara jo ekainaren 18a baino lehen.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**IRUÑAKO MANIFESTAZIORA JOATEKO AUTOBUSA**  
Bihar, zapatua, manifestazioa egingo dute Iruñan, 17:30ean, Kontseiluak antolatuta. Leloa da *Hizkuntz eskubideak denon konpromisoa*, eta Debagunek autobusa antolatu du debagoiendarrak hurrera daitezen. Txartelak salgai dituzte Loramendi EEn. Autobusa Azbe lantegi paretik aterako da 15:25ean.

**ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN**

**Durana kalea berritzeko lanak hasi zituzten**

Kale osoa altxatu zuten eta galtzada-harri berria jarri. Galtzada-harriak aurretik zegoenaren itxura izan arren sendoagoa zen, 6,8 zentimetro zituen. Espaloia eta harrizko mugarrietatik bazterrerara dagoen tartea ez zituzten ukitu. 13 milioi pezetako aurrekontua izan zuen, hau da, 79 mila eurotik gora.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Menustu”*

Eskatu. Edozer gauza, erropia, personia, pareta bat ero edozer gauza.



GORKA ORTEGA

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**



**AIRE BELTZA**  
Agustin Fernandez Paz  
Elkarlanean, 2004  
229 orrialde

Laura Novo psikiatriko batean dago, gaitz ezezagun batek jota. Medikua berria etorriko da psikiatrikora, eta gertatu zaion guztia idazteko eskatuko dio Laurari. Horrela kontatzen digu kazetari lana utzi eta Galiziako baserri turismo etxe batera joan zela bizitzera; baita han gertatu zitzaiona ere. Misteriozko eta beldurrezko argumentu baten bitartez, sinetaria kontuen eta psikologiaren arrazionalismoaren arteko zalan-tza piztuko du idazleak.

Gazteei zuzendutako *Izu tau-padak* bilduman argitaratu dute galizieratik itzulitako liburua.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**Adi!**

Zorionak!

**EKAINAREN 7tik AURRERA**  
**Zorion agurrak**  
**ASTELEHENEKO**  
**GOIENKARIAN!**

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

**Gainera...**

**Zorion agurrak, SMS bidez!**

Seniarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

**FRIXI** Eraikuntzak

Ondo ibili ferixen!

**Hormigoizko estrukturak, urbanizazio, kontratak eta enpresen mantenimenduak**

Aranburuzabala 56 • ESKORIATZA • Tel.: eta faxa: 943 71 55 15 • Poltsikokoa: 629 51 39 22




## ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsetan jatzu erretiei ixteko egiten dabitzen kanpañei?



**ESPE QUIROGA**  
Langillie

Edarto. Ni erretzaillie naz, eta izteko asmue dauket. Tabakuek ez dauko ezer, baiñe ezin itxi, guztiz lotute nauko. Neure kabuz ezin dot itxi, hortaz, medikuan-gana joan biherko naz.




**FELIX MADINABEITIA**  
Jubilau

Ondo, edarto, neuk be erre-ko ez baneu gurau, baiñe... Puru txikixek erreten ditudu eta beste biziorik ez dauketenez jarraitu egiten dot. Hala eta be ez dutzet ifñori errekomendetan.



**ELI REINA**  
Langillie

Oso ondo pentsetan jat. Erretzaillioi, neu be banaz-eta, lagunketako egiten dauela uste dot. Gutxiu erretie gureko nauke, baiñe guztiz iztie ez dot erabaki momentuz.



**EDUARDO ESTEVEZ**  
Langillie

Ondo dator bai osasunen-dako, bai poltsikuendako. Jentiek badaki txarra dala, baiñe ez da samurre iztie; esperientziatz esaten dot. Asko ez nauen erreten eta bastante samur itxi nutzen.



**MANOLI ROSA**  
Langillie

Ondo, baiñe ez dot pentsetan erretzailliek kasu haundirik egiten dutzienik. Badakixie txarra dala erretie, baiñe jarraitu egiten daue. Gero eta gaztiauek ikusten ditudu zigarruekin.



**JOSE ALBERTO DELGADO**  
Langillie


Ondo, ni ez naz erretzaillie, baiñe danoi etorriko jaku ondo. Izen be, leku publiko askotan erre egiten dau jentiek eta danon kalterako izeten da erretzaillien-dako eta bestiondako.

### TXALOAKETATXISTUAK

### ASTEKO DATUA

### HERRITARREN BERBAK/ Fernando Berrizbeitia

## llega hasta ARECHAVALETA para ofrecer auxilio



**TXISTUAK ARECHAVALETA, NOIZTIK?** Orainsu etxeko postontzietan utzi diguten propaganda orri baten Arechavaleta zetorren idatzita. Testua euskaraz zetorren aldean Aretxabaleta zegoen eta gazteleraz Arechavaleta. Ez da batere zuzena. Izen ofiziala Aretxabaleta da; hortaz, euskaraz nahiz gazteleraz nahiz ingelesez gure herriaren izena Aretxabaleta idatzu behar da. / M.A.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### EBPN jarri dute abian

Euskara Biziberri-tzeko Plan Nagusia jarri du abian Udalak. Martitzenean aurkeztu zuten.

ASTEAN BEHIN /05

#### Pintura erakusketa

Areantzan bizi den Gurutze Muxikaren lanak egongo dira ikusgai gaur hasi eta 18a bitartean.

KIROLAK /06

#### Igeriketa topaketa

Aratz elkarteko kideek Donostiako igeriketa topaketa hartu dute parte. 11 domina ekarri dituzte.

# 174

### UMEK EMAN DUTE IZENA UDALEKU IREKIETARAKO


Martitzenean, hilaren leian, itxi zuten Kultura Saileko arduradunek aurtengo udaleku irekietan parte hartzeko izenemate epea. 174 ume ibiliko dira uztai-leian herrian gora eta behera.

### BESTEKEESANA

“Madrilera joan aurretik San Joaneko abesbatza zuzentzen nuen nik, eta joan behar izan nuenean

Juanito Artzamendi sartu zen nire orde. Berak zera esan zidan: *Goio, etorri laster berriz abesbatzaren zuzendaritza hartzeko. Zu etorri arte egongo naiz ni.* Eta nola diren gauzak, bera zerura joan da eta momentuz ni nago bere orde; baina ez egunero, momentu berezietan bakarrik, San Joanetan esaterako. Juanitok merezi du, bizitza osoa eman du Arrasaten eta musikari dagokionez gizon garrantzitsua izan da. Elizkizunean hori ikusi zen. Gorputza heldu zenean Arrasate Musikaleko orkestrak hartu zuen Agur Jaunak jo eta kantatuz. Arrasateko eta Eskoriatzako Gorosarri abesbatzako kantariak egon ziren.

**GOIO ESKIBEL**  
Arrasate Irratia/04-05-31



## Ez moztu bizarra!

**G**oiena.net gunean ikusi ditut Aretxabaletan euskararen erabilerari buruzko emaitzak eta horien inguruan bertako foroan sortutako eztabaida. Eta irakurritakoan artean ideia batekin geratu naiz: militantziarena. Izan ere, parte-hartzaile batek zioen “euskerien erabilerie eta euskera militantie izetie lotute dazela” eta ni guztiz ados nago: gainera euskarak aurrera egingo badu, euskaldunen militantziari esker izango da, neurri handi batean.

Egia esan, neurketa horren zenbakie ez diet kasu handirik egiten: ez nieke egingo datuak “politagoak” izango balira, ezta “zatarragoak” izanda ere. Euskararen erabilera maila nahi genukeen adinako ez dela argi daukagu denok inkestean edo neurketen beharrik gabe. Azken urte hauetan behin baino gehiagotan zenbakien “liluran” jausi garela pentsatzen dut: D ereduen hedapena, euskaldun-kopurua-aren igoera, euskarazko argitalpen gorakada... Horiek denak

lorpenak izan dira eta beraien balioa ezin da ukatu. Baina uste dut lorpen hauekin batera nolabaiteko erlaxazioa etorri dela, hau da, euskara “salbu” ikusi dugula, eta, ondorioz, Arestiri kasu eginez, “bizarra moztu dugu”. Bizar hori, gure militantziaren ikurra da. Gure militantzia, edo hortik geratzen zaiguna, une zehatz batzuetan azaleratzen da: euskararen eguna, *Egunkariaren* itxiera, edo tokian tokiko gertakizunetan. Baina oso militantzia mantso-tua da, “hezitua”, bere eremuan kokatua, beste eremu batzuetara eraman gabe.

Badakigu batzuk gustura joango lirakeela euskararen hiletetara. Beste batzuk berriz, konformatuko lirake euskara “jadanik inolako erabilerarik ez duten hizkuntzen museoan” ikustearekin. Bigarren hauek “zibilizatuagoak” izaki, prest daude euskara “babestutako espezie” bat bezala tratatzeko.

Euskaldunoi dagokigu, gure erabilera militanteaz hori sekula gerta ez dadin ziurtatzea.

**“Parte-hartzaile batek zioen euskerien erabilerie eta euskera militantie izetie lotute dazela eta ni guztiz ados nago”**

**Aretxagazeta**

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA

Mirari Altube

ERREDAKZIOA

Mirari Altube  
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA

Alex Azkarate

PUBLIZITATEA

Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA

Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA

SS-378-94

ISSN

1134-2609

TIRADA

2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala





BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Kirolak eta kirolak

Kirola egitteko garai ona dala, eta kirol kontu ugari dabigu azken astiotan. Kirol zerbitzuak udarako kirol ikastaruek antolatu ditte. Hori bai, gaztetxuendako die; penie gero, aukera zabala dau-eta: badminton, golfa, patinajie, tenisa... neuk be gustora egingo nauke horreitakoren bat. Lenbailen emun izena leku barik geratu ez zaittezen.

Datorren astien, ostera, mendi martxie daukou herrixen. Murruxiko MEk hirugarren aldiz antolatu dau, eta aurten be jende multzue pillatuko da gure mendi bazterretan. Izen be, ibilbide politte gertaketan duskue, eta hamarretakue be gure beste... Hola fan leike mendire. Oiñetakuek gertaketan hasi biher naz hurrengo domekarako.

UDAKo preferente taldien, barrez, aldaketak egongo die datorren denboraldixen. Entrenatzaillie lanak egin dittuen Igor Gordobil Bergarako taldera doie, eta bere lekue Nikasio Galan arrasatearrak beteko dau. Honen laguntzaillie, ostera, Xabier Zangitu bergararra izengo da. Ongi etorri, bixei!

Eta bukaketako zorionak Larrinoko Unai Uriarteri. Izen be, pilota txapelketie irabazi dau Elgetan Juantxo arrasatearra bikote lagun izen dauela.

**EUSKARA/** Euskara biziberritzeko konpromisoa hartu du Udalak, eta horretarako gainerako erakundeen laguntza du

# Euskara Biziberritzeko Plana jarri du abian Udalak, euskarari bultzada emateko

MIRARI ALTUBE

**Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia jarri du abian Udalak Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren laguntzarekin. Horren berri eman zuten martitzenean egin zuten prentsaurrekoan. Euskarari bultzada eman gura dio Udalak herriko eragileen laguntzarekin.**

Euskara biziberritzea da Udalaren erronka datozen urteetarako. Horretarako erakundeen laguntza izango du eta herriko eragile partaidetza beharko du.

### EBPN-REN AURKEZPENA

Martitzenean aurkeztu zuten Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, EBPN, Aretxabaletako Udalean. Arritxu Olibiden alkatea, Xabier Sarasua Euskara zinegotzia eta Patxi Goenaga Hizkuntza Politikarako sailburuordea izan ziren aurkezpenean. Izan ere, euskara biziberritu eta sustatzeko konpromisoa hartu du Udalak, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren laguntza izango du. Martitzenekoa aurkezpen ekitaldia besterik ez zen izan, Euskara batzordeak orain dela hilabete batzuk hartu zuelako EBPN aurrera eroateko erabakia.

### HELURU ESTRATEGIKOAK

Euskara biziberritzea proposatu zion Udalak Euskara batzordeari orain hilabete batzuk. Aretxabaletan euskararen inguruan lan egiten duten talde eta elkarteak batzen dira Euskara batzordean, eta bertan erabaki zuten Eusko Jaurlaritzak proposatu eta bultzatutako EBPN aurrera eroatea.

Dagoeneko lanean hasita dago Euskara batzordea, eta hiru helburu estrategiko finkatuta ekin dio lanari: euskara belaunez belaun eta etenik gabe transmititzea eskola, euskaltegi eta familiaren bitartez; euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolaz kanpoko erabilera eremuetara zabaltzea; eta hizkuntza etengabe elikatzea herritarrek eroso, erraz eta kalitatez egin dezaten euskaraz.



Eusko Jaurlaritzak proposatutako EBPN eroango du aurrera Udalak, eta martitzenean aurkezpen ekitaldia egin zuten.

EBPN zabalik dagoen dokumentua da, hala esan zuen alkateak; eguneratzen eta egokitzen joango dira, gainera. Hala ere, Udalak hamar konpromiso hartu ditu Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren aurrean. Kon-

promisook herritarren partaidetzarekin eroango ditu aurrera.

### ERABILERA DATUAK

Orain hilabete inguru euskararen kale erabilerean gainera datuak eman zituzten. Datu horiekin eta

beste hainbatekin diagnostikoa osatu du Euskara batzordeak. Ahuleziak eta indar-guneak zehaztu dituzte bertan, baita ondorioak atera ere. Behin diagnostikoa eginda plan estrategikoa osatzea izango dute hurrengo pausoa.

## Udalak hartu dituen hamar konpromisoak


**Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren aurrean hartu dituen konpromisoak:**

- 1- EBPNren garapenerako solaskidea izendatzea. Euskara teknikariek beteko dute lan hori.
- 2- Orain arte herrian egin diren ekintzen datu-bilketa egitea. Dagoeneko eginda.
- 3- Diagnostikoa aztertu eta osatzea.
- 4- Udaleko Erabilera Plana egitea.
- 5- Plan Estrategikoaren iraupena erabakitzea eta proposamena egitea.

6- Euskara Aholku batzordea osatzeko proposamena egitea.

- 7- Euskara Zerbitzua (Udal barnekoa eta kanpoko) osatzeko proposamena egitea.
- 8- EBPN bete ahal izateko udal aurrekontuan sartzea.
- 9- Komunikazio planaren zirriborroa egitea, Eusko Jaurlaritzako eredu Aretxabaletara egokituz.
- 10- Plan Estrategikotik abiatuta lehenengo urteko kudeaketa plana egitea.

## NURR GORTINAK



Gortina eta estoreak  
Edredoiak  
Funda nordikoak  
Izarak  
Toallak

Loramendi 8 • Aretxabaleta • Tel.: 943 53 26 53



**PINTURA/** Astegunetan arratsalde eta zapatuetan goizez zabalduko dute erakusketa

# Margolanak erakutsiko ditu Gurutze Muxikak, gaur hasita

M.A.

Gaur hasi eta hilaren 18a bitartean Gurutze Muxikaren margolanak egongo dira ikusgai udaletxeko ganbaran. 18 bat lan erakutsiko die aretxabaletarrei Gurutzek. Gehienak paisaiak dira, eta guztiak azken bi urteotan margotutakoak.

Udaleko Kultura Sailak Gurutze Muxika margolariaren lanak jarri ditu ikusgai udaletxeko ganbaran. Gaur hasi eta 18a bitartean egongo da zabalik, astegunetan arratsalde eta zapatuetan goizez.

### PAISAIK BATEZ ERE

Areantzako Etxebarri baserrian bizi da Gurutze, eta bertan dauka egokituta lan egiteko txokoa. Paisaiak ditu gustuko, basoak batez ere, eta horietan margotzen ditu: "Argazkiak erabiltzen ditut gehienetan eredutzat. Margotzen nabilen lekura bertara joatea ere gustuko dut, baina zaila da ordu batzuetan lana bukatzea, eta etxean jarraitzeko argazkiak ezinbestekoak dira", dio Gurutzek.

### MARGOLARIA BETI IKASTEN

Orain dela 14 bat urte hasi zen margotzen Gurutze, serio margotzen behintzat. Orduetik hona asko ikasi du, baita teknika hobetu ere, baina margotzeko era ez du askorik aldatu. "Olio-pinturak egiten jarraitzen dut, kolore berdintsuak erabilia, eta paisaiak margotzen ditut gehienbat, hasi nintzen bezala. Hala ere, etengabe ikasten eta hobetzen egon behar du margolariak". Arrasateko margolarien taldeko kidea da Gurutze, eta ahal duenean taldekideekin batzen da: "Izan ere, beti ikasten da beste baten lanari begiratuta". Inguruko herrietan antolatzen



18 bat olio-pintura jarri ditu ikusgai Gurutzek udaletxeko ganbaran.

dituzten kartel lehiaketetan ere parte hartu izan du; hala, orain bi urteko Andramaixetako kartel iragarlea egin zuen, baita Bergarako zezen erakustaldiaren kartela ere. Orain, herrian izango ditugu ikusgai Gurutzeren olio-pinturak.

dituzten kartel lehiaketetan ere parte hartu izan du; hala, orain bi urteko Andramaixetako kartel iragarlea egin zuen, baita Bergarako zezen erakustaldiaren kartela ere.

Orain, herrian izango ditugu ikusgai Gurutzeren olio-pinturak.

## FOTONOTIZIA



### HZren leloarekin bat egin zuten herritarrek

Europako hauteskundeak egiteko gero eta gutxiago falta da, eta horren harira, kale agerraldia egin zuten 30en bat lagunek astelehen ilunkaran, Herritarren Zerrendaren leloarekin bat eginez: *Euskal Herria libre, aurrera!* HZri babesa ematea zuten helburu bertan elkartutakoek, eta era berean Espainiako auzitegien erabakien kontrako protesta egitea. Atzo, eguena, oster, mitina egin zuten Arrasaten, HZk antolatuta. /M.A.

## LABUR

### Kontsumo Bus 2004 ekimena aurkeztu zuen atzo Eusko Jaurlaritzak gure herrian

Kontsumo Bus 2004 ekimena hasi berri du Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzak. Euskal Autonomia Erkidegoko 40 udalerritan jarriko dute abian aurten, eta atzo, eguena, Aretxabaletan aurkeztu zuten. Arritxu Oliden alkatea eta Martin Garai Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoko arduraduna izan ziren aurkezpen ekitaldian. Durana kalean egon zen autobusak kontsumitzaileendako informazioa eta heziketa ematea zuten helburu, eta hainbat herritar hurreratu zen ikustera.

**Maritxu**  
**drogeria**  
**mertzeria**

Araba Ibilbidea 24  
Tel.: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

**JAUSORO OSTATUA**

Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61

**PIENSO**  
**SUNZUE S.A.**

**FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76

**Jauregi**  
Okindegia

Otalora 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

25. urteurrena  
1979-2004



IGERIKETA

# Hamaika domina ekarri dituzte Aratzeko igerilariek Donostiatik

Lau kide joan dira txapelketara, eta inoiz baino domina gehiago ekarri dituzte

M.A.

Urtero joaten dira Aretxabale-tako adimen urriko kirolari batzuk Donostiako Altzan egiten duten Igeriketa Topaketara. Eta urtero ekarri ohi dute dominaren bat edo beste, baina aurten 11 izan dira lortutakoak. Izan ere, kide berria izan dute lagun.

FEVAS Kirol Elkarrekin urtero antolatzen ditu adimen urriko lagunendako Igeriketa Topaketak Donostian, eta azken urteotan Aretxabale-tako hiru igerilarik hartu dute parte. Aurten lau joan dira.

## GUZTIRA 117 IGERILARI

Donostiako Altza auzoko igerilekuan 117 igerilari elkartu ziren maiatzaren 22an. Adimen urrikoak ziren guztiak, eta Euskal Herriko kirolariek gain Zaragozatik eta Logroñotik etorritakoak ere egon ziren. Crawl, bizkar-igeriketa eta bular-igeriketa egin zituzten parte-hartzaileek, eta bukatzeko taldeka lehiatu ziren errelebutako lasterketan.

## KIDE BERRIEKIN

Atzegik Aretxabale-tan duen taldeko, Aratzeko, kideek urtero hartzen dute parte Igeriketa Topaketan. Iker Arexolaleibar, Iñaki Iturbe eta Juan Carlos Barkerok joan izan dira orain arte, eta oraingoan beste kide bat eroan dute: Atzegik Durana kaleko 13. atartearen duen etxebizitzan bizi den Jon



Igerilari taldea Pedro Balentziaga entrenatzailearekin eta Aratzeko arduradun batekin.

Ander Leonardo. Bera bakarrik ez, etxe berean bizi den Iñaki ere joan zen animatzera, eta talde handiagoa izateko asmoarekin.

## HAMAIKA DOMINA

Lau kideen artean 11 domina ekarri dituzte herrira: Iñaki Iturbek zilarrezkoa eta brontzezkoa, Juan Carlos Barkerok zilarrezko bi, Iker Arexolaleibarrek brontzezkoa eta Jon Ander Leonardok urrezko bi. Horrez gain, taldeka

ere hartu zuten parte errelebutako lasterketan; txapelkunordeak izan ziren eta zilarrezko dominak eman zizkieten lauri.

Pedro Balentziagak astero-astero entrenatzen duen igerilari taldea oso pozik itzuli zen Donostiatik. Jaso duten domina kopurua ikusita entrenamenduetan fin-fin jarraitzeko gogoz etorri dira, eta datorren urteari begira antzeko lana edo hobe egiteko ilusioarekin noski.

KARATEA

## Bergarako kata eta kumite txapelketan hartuko dute parte Aretxabale-tako karatelariak

Arrasateko, Bergarako eta Aretxabale-tako karate elkarteek antolatuta II. Karate Txapelketa egingo dute bihar, zapatua, Bergarako kiroldegian. Aretxabale-tako hainbat karatek hartuko dute parte oraingoan ere. 14 urtetik azpikoek kata erako txapelketa jokatu dute eta 13 mutiko joango dira gure herritik. 14 urtetik gorakoak, bestalde, kata eta kumite karate-modalitateetan arituko dira, eta aretxabale-tar bakarrik hartuko du parte: gerriko horia duen Ander Hernandezek, hain zuzen ere.

KIROL ZERBITZUAK

## Udako kirol ikastaroetan parte hartzeko izenemate epea zabalik dago hilaren 11 arte

Hainbat ikastaro antolatu ditu Udaleko Kirol Zerbitzuak ume eta gaztetxoendako uztaileko. Igeriketa, patinajea, tenisa, golf, eskalada, aerobika, badminton, esku pilota eta multikirola izango dituzte aukeran bi aste egiteko. Bi txanda egongo dira aukeratzeko: ekainaren 28tik uztailearen 9ra eta uztailearen 11tik 23ra. Ordutegiak, gainera, taldearen eskaerara egokituko dituzte.

Igeriketan bakarrik har dezakete parte 4 urtetik gorakoek, eta gainerako kirolak aritzeko 8 urte izan behar dituzte parte-hartzaileek; eskaladarako, ostera, 10 eskatzen dituzte. Kirol zerbitzuetako abonatuak 16 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 20 euro. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago hilaren 11 arte, eta kirol etxera deitu besterik ez dago (943 71 26 28).

EDADETUEN KIROLA

## Debagoieneko edadetuen kirol jaia aurten Aretxabale-tan egingo dute ekainaren 11n

Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatuta, sasoiaren egoteko gimnasia dabilten edadetuek kirol jaia egiten dute urtero. Hilaren 11n ospatuko dute, eta Aretxabale-tako Kirol Zerbitzuari egokitu zaio hura antolatzeko. Izena emateko epea ekainaren 7an bukatuko da, eta norberaren herriko kirol etxean egin behar da.

Jaiaren helburua da egun alai pasatzea, eta bide batez kirolarekiko zaletasuna indartzea edadetuen artean. Bazkalostean hasiko dute jaia, 15:15ak inguruan, eta 17:30ean bukatuko dituzte kirol ekintzak. Opariak banatuko dizkiete orduan; partaide guztiek jasoko dituzte gainera; eta 18:00etan luntxa eta dantzaldia hasiko dira. 19:15ak inguruan bukatutzat emango dute kirol jaia. Aretxabale-tara etortzeko autobusak jarriko dituzte antolatzaileek.

**Esko Sport**  
Zure konfidantzako denda  
Intxaurtxueta 5, ESKORIATZA. 943 71 52 96  
LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA

**Mobiliario  
ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**PAGALDAI**

*Opari denda  
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

**Jon Díaz**

*Karakina*

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**ZARAIA  
taberna**

Goizeko 06:00etik irekita  
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

**BENGOA  
URDAITEGIA**

Bertako okelak  
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**Lie**

**LURRINDEGIA  
OPARI DENDA**

Mitarte 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETA



ERRETRATUZAHARRA

## Ezpeleta eta Garcia-Etxabe bikotea

**P**rofesionalen mailan jokatu duen aretxabale-tarrrik ez dugu izan; baina pilotari handiak gurean ere egon dira. Behin baino gehiagotan jokatu zuen erretratuko bikoteak Debarroko Pilota Txapelketa. Pablo Ezpeleta eta Ignacio Garcia-Etxabe dira. Erretratua 1945-1951 urte artean ateratakoa ei da; 1951. urtean hain zuzen Debarroko txapelkunak izan ziren, eta kopa eskuan dutenez orduantxe ateratakoa izan daiteke. Beste urte baten, osterara, bigarren geratu ziren.

Pilotari handia zen Ezpeleta; urte baten


Espainiako txapelduna izan zen. Profesionalen mailan ere ibili zen, baina urte gutxian. Ignacio Garcia-Etxabe edo Elortondo izaten zituen bikote kide Ezpeletak. Azken honek eta Garcia-Etxabek UDAko futbol taldean ere jokatzen zuten. Hortaz, kirolari bikainak ziren guztiak ere.

Ezpeleta oraindik ere bizi da Gasteizen. Gerriko lantegia zeukan familiak Durana kalean, orain Taberna Berri dagoen lekuan, eta Gasteizera eroan zutenean lantegia hara joan zen bizitzera emaztearekin.

Ignacio Garcia-Etxabek, bestalde, anaia

Jesusi utzi zion lekua frontoietan. Partidu bakarra jokatu zuten elkarrekin 1953. urtean, Arrasaten. Ignacioren azkena izan zen eta Jesusen lehenengoa. 17 urte zituen azken horrek. Ordezko bikaina utzi zuen Ignaciok, gainera; izan ere, txapelketa dotoreak jokatutakoa da Jesus. Hori bai, herrian bikotekiderik ez eta arrasatearrak izan zituen beti lagun. Azkarate bikote zuela, esaterako, Gipuzkoako txapeldun izan zen Legazpin jokatutako txapelketan.

**Argazkia:** Ramon Elkoro  
**Informazioa:** Jesus Garcia-Etxabe



## Zatoz Musika Eskolara!

### LEIZARRA MUSIKA ESKOLA



#### LEIZARRA MUSIKA ESKOLA

Otalora 27

Aretxabaleta

Tel.-faxes: 943 79 36 50

#### **Ordutegia:**


Astelehenetik ostiralera  
17:00etatik 19:00etara

#### **Matrikulazio epea:**

Maiatzaren 18tik ekainaren 18ra

Zure seme-alaben heziketa integrala izan dadin...  
musikarekiko sentsibilitatea ere garatu





**ferixie**

**Ekainak 5 Eskoriatza**

ANTOLATZAILEA

**Arizmendi**  
ikastola  
Jose Arana gunea



eskoriatzako  
udala



# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 4a / 168. zenbakia

## Eskoriatzako VIII. Ferixie

Baserritarren eta artisauen  
ia 100 postu zapatu goizean  
Eskoriatzako kaleetan





# Zortzigarren ferian giro paregabea aurreikusten dute antolatzaileek

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**Bihar VIII. Ferixie ospatuko da. Urteroko ekimenez gain, harri-zulatzailen erakustaldiaz gozatzeko aukera egongo da. Gainera, turroia egiten duen eskoriatzar batek hartuko du parte azokan, eta aspaldiko errezeta batean oinarritutako lana aurkeztuko du.**

Etxafuego jaurtiketa eginaz hasiko dute VIII. Ferixie. Hala ere, 10:30ean irekiko dituzte kalean egokitutako postuak.

Aurten ere 90 bat postu egongo dira Eskoriatzan: artisauak, baserriko tresneria, baserriarren produktuak eta elikagaiak jarriko dituzte horietan. Eskoriatzar guztiak batera egongo dira bihar.

Hasieran postuen banaketa gaika egiten zuten arren, azken urteotan herritarrek elkarrekin egokitu dituzte euren saltokiak Santa Marina plazan.

Gazteentzako txokoa egokituko dute azokan, haientzako tailer, karaoke eta txorimalo lehiaketa antolatu dituzte, besteak beste. Animaliak ere aurkituko ditu bisitariak biharko azokan. Ez dira ohiko animaliak erakusten Ferixien; nahiko animalia bereziak ekartzen dituzte, eta aurten ere horrelakoak izango dira.

Gainera, aurtengo edizioan harri-zulatzailak ikusteko aukera izango dute Eskoriatzara hurbiltzen direnek. Herriko plazan egingo da gure artean arrotza den kirol horren erakustaldia. Lehiaketa gisa antolatu dute ekimena.



**FINANTZAKETA MODUA.** Eskoriatzan azken urteetan egiten den azoka hori finantzatzeko, besteak beste, talo-postua jartzen dute urtero.

Beste toki batzuetatik ere jasotzen dute dirua antolatzaileek. Taloak egiten, baina, giro bikainean lan egiteko aukera izaten dute herritarrek.

## EGITARAUA

- 09:00** Etxafuego jaurtiketa.  
**09:30** Txistularien kalejira.  
**10:30** VIII. Ferixien hasiera: baserriko produktuak, artisautza, abereak eta tresneria egongo dira ikusgai.  
**11:00-14:00** Umeen txokoak:  
 VIII. Txorimalo Lehiaketa (4 eta 99 urte bitartekoendako).  
 Euskal Karaokea plazan (2 eta 14 urte bitartekoendako).  
 Tailerrak.  
**12:00** Euskal Herriko harri-zulatzailen lehiaketa eta erakustaldia.  
**12:30** Sari banaketa.  
 Trikitilarien kalejira.  
**15:00** Herri bazkaria frontoian. Errifaren zozketa.




# Aliprox

## Ondo ibili guztiok ferixen!

Aranburuzabala 3 • Eskoriatza • Tel.: 943 71 45 46

**LENIZ**  
ESKORIATZA



■ Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

■ Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

## ONDO IBILI FERIXEN!

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45





**AURPEGIAK MARGOTZEN.** Ferixien gazteentzako ekintzak antolatzen dituzte, eta horietariko bat aurpegiak margotzea izaten da. Are gehiago, baserritar jantzita ere bat baino gehiago izaten da musua koloreztatzen duena.




**BASERRIKO PRODUKTUAK.** Baserritarren produktuak izaten dira postu gehienetan, eta Eskoriatzakoak izan daitezten saiatzen dira antolatzaileak. Artisauak ere egongo dira: espartinak eta adarrak jarriko dituzte, esaterako.



**OGIBIDEA ZUZENEAN IKUSTEKO AUKERA.** Gai askoren erakusleihu da biharko Ferixie. Hala ere, ez da erakusketa soila izango: bertan egongo diren zenbaitzuek zuzenean erakutsiko dute euren lana nola egiten den.

**ATREBENTZIAEZPADA/ Gustuko duzu Ferixie? Bertan parte hartzen duzu?**




**JUAN PEREA**  
Erretiratua



**DORLETA ELKOROBARRUTIA**  
Langilea



**AIORA IGARTUA**  
Langilea



**ANTONIO MEDIAVILLA**  
Erretiratua



**PUY GAMBRA**  
Langilea



**NAVAS GARCIA**  
Erretiratua

Bertako produktuak ikusi eta erosteko aprobetxatzen dut Ferixie. Ohituratzat hartu behar da egun hori, bertako produktuak ezagutzera emateko bidea da-eta.

Mendi ibilaldiak egiten hasten gara sasoi honetan, eta ez dut parte hartzeko ohiturarik. Hala ere, horrelako azokak gustuko ditut. Erdi Arokoak, aldiz, ez.

Bai, urtero hartzen dut parte. Goizean goiz irten, postuak ikusi, herri bazkarira joan... Baina gutxi erosten dut, eta inoiz azokan laguntzea egokitu zait.

Asko gustatzen zait Ferixie. Urtero joaten naiz ikustera. Bertako baserrietako produktuei bultzada emateko balio du, eta hori garrantzitsua da.

Ogia saltzera etorri naiz behin baino gehiagotan. Hala ere, aurten ez naiz egongo, lanpetuta nabil eta. Nire ustez, Ferixiek artisau lanak baloratzeko balio du.

Bai, gustuko ditut horrelako ekimenak. Urtero joaten naiz azokara, eta beti erosten dut zerbait. Bide batez, bertako produktuak sustatzeko balio duela uste dut.



ondo ondo  
pasau FERIXE  
eguna!

ILE APAINDEGIA · LUZATZEAK · MAKILLAJEA · LOOK ALDAKETAK  
Aranburuzabala 30 ESKORIATZA 943 71 30 31



**PAGALDAi**  
HARATEGIA-URDAITEGIA

Ondo ibili  
ferixen!

Gaztainadui 15 • Tel.: 943 71 51 97 • ESKORIATZA



## ELKARRIZKETA

ROSA ELIZBURU/ANTOLATZAILEA

*“Herriari garrantzia eman eta herritarrek batzea lortzen duen ekimena da Ferixie”*

Z.V.M.

Rosa zortzi urtean aritu da Ferixie antolatzen. Ordu asko kentzen dizkion arren, oso gustura egiten duen lana dela aitortu digu. Azken emaitza ikusteak, hau da, jendea pozik ikusteak, hilabeteko lana konpentsatzen duelako.

**Nola hasi zineten herrian Ferixie antolatzen?**

Duela zortzi urte ikastolaren 25. urteurrena ospatu genuen, eta herrian azokarik egiten ez zenez, bat antolatzea pentsatu genuen. Aspaldi zegoen ohitura berreskuratu gura genuen, eta herritarrengandik harrera ona izan zuela ikusita, errepikatzea bururatu zitzaigun, gaur egunerà arte.

**Azoka berreskuratzeari gain, badu beste helbururik?**

Bai. Herriak izan behar du protagonista, hartara, elizateak presente izatea helburu hartu genuen. Hemengo produktuek dute lehenetasuna, baina bertan aurkitzen ez ditugunak kanpotik ekartzen ditugu. Gainera, herriko hainbat talde irteten dira egun horretan, eta herritarren parte-hartze handia ekarri du horrek.

**Jende asko antolatze lanetan.**

Jende askok hartzen du parte urtero antolaketan. Iaz, esaterako,



Z.V.M.

*“Ikasleek lan txukuna egiten dute azoka egunerako; ardura handia hartzen dute”*

*“Harri-zulatzailen erakustaldia eta euskal karaokea dira aurtengo berritasunak”*

180 lagun aritu ginen. Aurten ere ehun baino gehiago bildu gara. Gurasoak, aitona-amonak, ikasleak, ikasle ohiak... Herriko elkar-teez gain, adin guztietako herritarrei egin diegu laguntzeko dei.

**Nola moldatzen zarete lan guztia koordinatzeko?**

Hamabost pertsonako talde txiki batek du antolaketa guztiaren ardura. Martxoan hasita, erabakiak hartu eta dena lotzen hasten da. Taldetxo horren lana da gai-

nerako lantaldeen arduradun izatea eta dena kontrolatzea.

**Zer da Ferixie eskoriatzarrentzat?**

Herri mailan garrantzia duen beste egun bat da, San Pedro edo Euskararen Eguna bezala, esaterako. Herritarrek batzen dituen festa.

**Ikasleak lanean aritzen dira.**

Bai, nahikoa lan egiten dute egun horretarako. Txikitatik parte hartzeko aukera ematea da gure asmoa. Jolastu, postuak jarri edo begirale lanetan aritzea; betiere, adinaren arabera. Ardura handia hartzen dute, gainera; salmenpostu bat jartzen dutenak, adibidez, bi hilabete lehenago hasten dira guztia prestatzen.


**Ze berritasun izango du aurtengo Ferixiek?**

Iaz harri-jasotzaileak aritu ziren; aurten Bizkaitik datozen harri-zulatzailak erakustaldia egingo dute, 12:00etan hasita. Bi talde arituko dira, eta horrela, erakusketa hutsean baino gehiago, lehiaketa moduan arituko dira. Harri-zulaketa kirol bezala berreskuratzea da beraiek duten helburua. Bestalde, euskal karaokea antolatu dugu. Herriko plazan izango da, eta bertan parte hartzeko hiru eta 14 urte bitartean eduki behar da. Baserriko tresneria ere erakutsiko da azokan. Aurten, txikiez gain, makina handiak ere egongo dira ikusgai.

**ARRANDEGIAK  
J. EGUREN****Arrain freskoa eta izoztua**

Santa Marina 32. Tel.: 943 79 59 06. ARRASATE

Santa Ana 11. Tel.: 943 71 48 61. ESKORIATZA

**ONDO IBILI FERIXEN!****NAIRA Taberna**Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71**ONDO IBILI FERIXEN!**





Auto-ilara luzeak sorrarazi zituzten egubakoitzean saihesbidean egindako protestan.

## Lehenengo 'Zazpi elizateen martxa' arrakastatsua

Z.V.M.

Guztira 60 lagun elkartu ziren domeka goizean herriko plazan. Beraien helburua, *Zazpi elizateen martxa*-n parte hartzea. Aurtengo arrakasta ikusita, datorren urtera begira horrelako beste irteera bat egiteko asmoa dute antolatzaileek.

Domekan, *Zazpi elizateen martxa* egin zuten herrian. Lehenengo aldiz egin den ekimena izan da. Helburua zen Mazmela, Zarimutz, Marin, Apotzaga, Gellao, Mendiola eta Bolibar lotzen dituen bideak eta herriaren zati diren elizateok hobeto ezagutzea.

Goizeko 07:30ean elkartu ziren herriko plazan. Antolatzaileek hasieran ez zekiten zehazki zenbat pertsona bilduko ziren bertan. Hala ere, ezustekoa hartu zuten. 60 lagun goizean goiz jaiki eta inguruko bazterrak ezagutzera animatu ziren.

### IBILALDI LUZEA

Nahiz eta domekan egin zuen eguraldia ez zen bikaina izan, mendi irteera egiteko mendizale askok gustukoaren duten giroa zegoen. Mendiko botak jantzi, tx-

marra soinean hartu eta ibilaldi luzeari ekin zioten plazan bildutakoek.

Antolatzaileen esanetan, lehen urtea izanda, ez zuten antolaketa handirik prestatu. Hala ere, kartelak egin zituzten, eta horrekin batera, ibilbidea seinaleztatu.

### ESKORIATZARRAK BAKARRIK EZ

Elizateetatik igarotzen den ibilbidea ez zuten eskoriatzarrek bakarrik egin. Antolatzaileen esanetan, bailarako beste herri batzuetako jendea egon zen domekako mendi ibilaldi horretan. Bestalde, 60 parte-hartzaileetatik bi, mexikarrak ziren.

Herriko zazpi elizateak lotzen dituen ibilbide luzea ez zuten guztiak aldi berean amaitu. Herrira lehenengo iritsi zen mendizaleak goizean irten eta bost ordura egin zuen sarrera. Azkenak, aldiz, zazpi bat ordu behar izan zituela adierazi dute antolatzaileek.

Herriko mendizale talde horrek antolatutako lehenengo irteera izanda, eta aurtengo jende kopuru handia ikusita, datorren urtean ere mendi irteera bera egiteko asmoa azaldu dute antolatzaileek.

*Ibilaldia lehenengo amaitu zuenak bost ordu behar izan zituen herrira iristeko*

*Bailarako herrietakoak animatu ziren, baita herrian zeuden bi mexikar ere*

## LABUR

### San Pedrotako danborradako entseguak, hasita

San Pedrotan, urtero legez, danborrada egingo dute herriko kaleetan. Hain zuzen ere, martitzen hasi ziren entseguak, eta dagoeneko bi egin dituzte. Izan ere, martitzen eta eguenetan elkartuko dira ekainean zehar parte-hartzaileak pilotalekuan. 21:30ean hasi eta ordubetez danborrak jotzen arituko dira, herriko jaietan soinuak onena ateratzeko asmoz. Izena eman nahi dutenek entseguetara joan eta danborra jotzen hasteko aukera izango dute.

### Autobusari eta antzerkiari buruzko oharra

Asteburuan Ferixie egingo da herrian, eta horregatik, gaur 14:00etan hasita eta bihar 16:00ak arte, Gaztainadui kaleko 15 zenbakitik Aranburuzabala kaleko 12 zenbakira bidea itxita egongo dela adierazi dute Udaletik. Zerbitzu guztiak goiko etxeetan egingo dute geralekua.

Bestalde, Axtrokik antolatuta, datorren ekainaren 10ean, Ramon Agirre aktoreak *Zazpi gezur txiki* ikuskizuna ekarriko du Eskoriatzara. Musika, antzerkia eta umorea uztartzen dituen saioa izango da, eta unibertsitatean eskainiko du emanaldia, 19:00etan hasita.

## Autobideak kaltetutakoek jarritako alegazioak, aurrera

Z.V.M.

Egubakoitzean protesta ekitaldia egin zuten autobideak kaltetutako hainbat herritarrek. Autoak hartuta Aingerugaradako biribilunetik Ederlan parera joan-etorriak egin zituzten; auto-ilarak sortuz. Arratsaldean, Donostiara joan ziren Foru Aldundiarekin batzera.

Eibar-Gasteiz autobideak kaltetutakoek elkartekoek protesta ekitaldia egin zuten egubakoitzean. Autoak hartu eta gora eta behera ibili ziren saihesbidean, auto-ilara luzeak sortuz. Arratsaldean, berriz, Donostian izan ziren Foru Aldundiko ordezkariekin biltzeko; Joxe Joan Gonzalez de Txabarri ahaldu nagusirekin, Lopez de Gereñu Landa Garapenerako

eta Jabier Zurriarain Errepideetako diputatuekin, hain zuzen ere. Bileran egon ziren Jabier Villar, Unai Salaberria eta Pedro Lasagabaster, elkartearen izenean.

### BAIKORTASUNA NAGUSI

Donostian egon ziren eskoriatzarren esanetan, jarrera positiboa igarri zieten Aldundiko ordezkariak. Izan ere, hiru konpromiso beteko dituztela hitzeman zieten herriko elkartekideei. Behin proiektua onartuta, eskoriatzarrek alegazioetan proposatutako hainbat aldaketa jasoko zutela ziurtatu zieten. Bestetik, proposamenak kaltetuen ordezkariekin batera ikertuko dituztela bermatu zieten. Azkenik, egin behar diren aldaketak desjabetzea gertatu aurretik egiteko konpromisoa hartu zuten Diputaziokoek.

# AKEITA

t a b e r n a

Pintxoak eta  
ogitartekoak

ZATOZ FERIXARA ETA EGIGUZU BISITA!

TEL.: 943 71 50 94 • Santa Ana 23 • ESKORIATZA



# Villar

Ile apaindegia

Ondo ibili Ferixen!

Olazar auzoa 9 • Tel.: 943 71 50 42 • ESKORIATZA



# Dorletan esaten dituzte mezak, maiatzean hasi eta urrira arte

Z.V.M.

Maiatetik urria amaitu arte, mezak herriko parrokiaren esan beharrean Dorletako elizan esango dituzte. Domekero izango da hitzordua, 12:30ean. Horrez gainera, kanpoko jende ugari gerturatzen da uda partean Dorletara; asko eta asko, ezkontzera.

Gatzagako elizan ez dituzte elizkizunak urte guztian zehar egiten. Izan ere, urte erdiz herrian eta beste erdiz Dorletako santutegian esaten dute meza. Maiatzaren 2an Dorletan hasi ziren emanaldiak, eta ordutik hona, elizara joan nahi dutenek bertaraino hurbildu behar dute derrigor.

## MEZAK DORLETAN

Herriko elizan ez da mezarik egongo datozen hilabeteetan. Orain, Dorletan esaten dituzte, eta urriaren azken domekara arte bertan esango dituzte.

Gatzagako parrokiara herri-tarrak izaten dira gehien gerturatzen direnak. Hala ere, maiatzetik urrira, kanpotar ugari erakartzen ditu Dorletak. Hori dela eta, jende asko animatzen da domeketako meza entzuterara. 12:30ean izaten da hitzordua. Nahiz eta gaur egun lehen baino jende gutxiago joaten den mezetara, Dorletako ikuspegiak fededun asko erakartzen ditu. Hala, ibilaldira egin ondoren, asko elizara sartu eta Martin Mendizabalen ahotik meza entzuten dute.



Dorleta inguratzen duen edertasunak bikote asko erakartzen ditu ezkontzak bertan egiteko.

Hala ere, asteko meza ez da Dorletako elizan egiten den ospakizun bakarra. Izan ere, jende askok erabakitzen du santutegian ezkontzea. Inguruko paisaiaren edertasunak ezagun egin du Dorleta. Iaz, esaterako, 28 bikote ezkondu ziren bertan, eta aurten ere, kopuru horren bueltan ibiliko direla adie-

razi digute Gatzagatik; 20-30 bitartean izango omen dira.

## ARANTZAZUTIK GATZAGARA

Leintz Gatzagan meza esaten duena ez da herrian bizi. Izan ere, azken urteetan Martin Mendizabal frantziskotarra arduratzen da elizkizunaz. Esan bezala, ez da

herrian bizi; Arantzazutik jaitsi eta Gatzagaraino gerturatzen da domekero Mendizabal. Hamabi urte daramatza jada Martinek Gatzagako zeremonia zuzentzen. Hala ere, aurretik beste elizgizon bat, Eskoriatzatik marianista bat joan eta bera arduratzen zen meza gatzagarrei emateaz.

## LABUR

### Karrantza aldera abiatu dira gaur GURELekoak

Gaur, egubakoitza, joango dira GURELekoak Karrantza aldera, eta domekan egingo dute itzulera. Turtzioz herritxoko Armañon aterpetxean hartuko dute atseden 34 lagunek. Kobazuloak ikusteko asmoa iragarri dute guraso elkarte-koek, eta El Karpin Parke Naturaleko Dinosaurio Animatronikoen Parkera ere gerturatuko omen dira. Eguraldi ona egiten badu, mendi ibilaldia egingo dute, eta Turtzioztik 15 kilometrorara dagoen hondartza ere bisitatuko omen dute.

### Herriko zenbait lagun Iparraldean izan ziren zapatuan

Aurreko zapatuan, maiatzak 29, Gatzagako sei gazte Iparraldera joan ziren. Sarara egin zuten irteera Luis Ezeiza ikastetxean dabilzan ikasleek. Beraien guraso, irakasle eta ikaskideekin egin zuten irteera; guztira 176 pertsona. Guraso eta seme-alabak eskal giroan murgiltzeko balio izan zuen txangoak.

Saran bazkaldu zuten, bertako kobazuloak ikusi zituzten. Ondoren, Larrun mendira igotzeko prestatutako kremaillera-tren berezia hartu, eta 905 metrotara igo ziren. Bertan, gure herrialdeko muga eta edertasunak ikusteko aukera izan zuten.

# GATZA-GAIN Jatetxea

BERRIZ ERE ZUREKIN!

943 71 40 05 LEINTZ GATZAGA



**AZKOAGA**  
ESTANKOA

Zure zerbitzura  
**ESKORIATZA**


*Zatoz Ferixara!*  
*Ondo ibili danok!*

*Mendraka*  
Txakolina

Tel.: 94 682 00 00  
**ELORRIO**



# Hurrera zaitezte ferixara eta **ondo pasatu!**

**FAGOR** 

**ELEKTRATRESNA  
TXIKIKO  
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g

Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)



Maulanda  
*merenderoa*

Ondo ibili  
ferixen!

Maulanda auzoa ESKORATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida



**ALTO DEBA  
MARGOAK**

DEKORAZIO PINTURA  
PINTURA INDUSTRIALA  
FATXADAK

Tel.eta Faxe: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25




**J.SANCHEZ  
ITURGINTZA**

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10  
ARETXABALETAK  
Tel.eta faxe: 943 79 69 32 Poltsikokoa: 689 58 79 12

Dintura eta dekorazioa



**Gimbert**

San Migel 13, behea C  
ARETXABALETAK  
609 143 119



RADIO  
ELECTRICIDAD  
LEGAZPIA

**"R.E.L.E."**

Gotzon Beitia Lazkano

Denda:  
Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 65

Tailerra:  
Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 12

ESKORIATZA

**AITZORROTZ  
elektronika**

- Tebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10  
Otalora, 14 ARETXABALETAK

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza  
Dekorazio eta Industrial

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA  
Tel.-Faxe: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Poltsikokoa: 608 92 11 18

**FRIXI** Eraikuntzak

Hormigoizko estruktura,  
urbanizazio, kontrata  
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA  
Tel. eta faxe: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

**OYANGUREN  
Iturgintza**

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limatizazioa

**L. GONZALEZ**

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6  
ARETXABALETAK  
686 113 581

**ARETXARGI**

Modesto ROMEO  
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETAK - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK




Instalazioen mantenimendu osoa  
Berokuntza • Gasa  
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxe: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOAK  
ALUMINIOA-EGURRA  
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Araba ibilbidea, 17 eta 25  
•Tel: 943 79 28 41 •Faxe: 943 79 79 06  
•20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
•E-mail: kurtzebarriehioak@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1  
117 posta kutxa  
ARETXABALETAK  
Telefonia eta faxe:  
943 79 78 45  
Poltsikokoa:  
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

**ARETXABALETAK  
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETAK

**J.J. ITURGINTZA  
IRURE**

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA



MITARTE 15  
ARETXABALETAK

943 793 187